

Larrua hotz





Albert Sanchez Piñol | (Bartzelona, 1965). Idazle eta antropologo katalana, Afrikako diktadoreei buruzko *Pallasos i monstres* satira gordina argitaratu zuen 2000. urtean eta, ondoren, *Compagnie difficili* (Marcello Foisekin batera) eta *Les edats d'or* saiakerak kaleratu zituen italieraz eta katalanez.

Hala ere, lehen eleberriarekin eskuratu zuen arrakasta, *Larrua hotzekin* (La Campana, 2002). Epe laburrean eta inolako laguntzarik gabe, milaka ale saldu, liburua hogeita bost hizkuntza baino gehiagotara itzuli, film proiektu bat martxan jarri eta bi sari erdietsi zituen. Geroztik, Piñolek berezko tokia du idazle katalanen artean.

Albert Sanchez Piñol

Larrua hotz



OBRA HONEN ITZULPENAK
INSTITUT RAMON LLULL-EN LAGUNTZA JASO DU

LLL institut
ramon llull
Hizkuntza eta kultura katalanak

JATORRIZKO IZENBURUA
La pell freda
KATALANETIK ITZULPENA
Lander eta Zigor Garro Perez

LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2009ko otsaila

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Albert Sanchez Piñolek
OBRARENA
© Lander eta Zigor Garro Perezek
ITZULPENARENA

Editorial Txalaparta e.m.l.
Navaz y Vides 1-2
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
RGM
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN
978-84-8136-541-2
LEGE GORDAILUA
BI. 402-09



INOIZ EZ GAUDE GORROTO DITUGUNENGANDIK aski urrun. Arrazoi beragatik pentsa genezake, hortaz, maite ditugunak ere ez ditugula sobera gertu. Ontziratu nintzeanean, ezagun nuen printzipio lazgarri hau. Baina badaude arduratzea merezi duten egiak, eta badaude beste batzuk, zeinekin ez baitzaigu hartu-emanik komeni.

Goizaldean ikusi genuen irla aurrenekoz. Hogeita hamahiru egun ziren izurdeak gure popan agertzen ez zirela, eta hemeretzi tripulazioak lurrin hodeiak jaulkitzen zituela ahotik. Eskoziar marinela ukondoetaraino igotako eskularruekin babesten ziren. Larru mar-dulak zeramatzaten, mortsen gorputzak gogorarazten zituztenak. Oinaze-asto hutsak ziren latitude hotz haiek senegaldarrentzat, eta kapitainak uzten zien masailean nahiz kopetan patata koipea babes-makillaje gisa erabiltzen. Urtu, eta begietatik pasatzen zen materia hura. Malkoak isurtzen zituzten, inoiz kexurik egin gabe.

—Zeure irla. Begira ezazu, azken zeruertzean —esan zidan kapitainak.

Ez nuen ikusten jakin. Itsaso hotz hura baino ez, beti bezala, urrutiko hodeiek inguratuta. Oso hegoaldean ibili arren, antartikoko izebergak ez ziren agertu zeharkaldian. Inongo izozmendirik ez, norabiderik gabeko erraldoi natural eta ikusgarri haien arrastorik ez. Hegoaldearen ankerkeria pairatzen genuen, baina haren handitasuna debekatzen zitzaigun. Nire patua, bada, inoiz zeharkatuko ez nuen muga izoztu baten atarian zegoen. Kapitainak prismatikoa eman zidan. Eta orain? Ikusten al duzu? Bai, ikusi nuen. Lur apal bat ozeanoaren eta zeruaren grisen artean, apar zurizko lepoko batez inguratua. Besterik ez. Ordubetez itxaron behar izan genuen ostera ere. Gero, hurreratu ahala, silueta ageriko egiten joan zen.

Hona nire etorkizuneko bizilekua: puntatik puntara kilometro eta erdira nekez iristen zen hedadura bat, ele letraren formakoa. Ipar muturra faroak hartutako granitozko muino bat zen. Bere kanpandorrearen garaiera nabarmentzen zen. Ez zuen zehazki bere muntagatik larderiatzen baina, irlaren murrizak, kontrastean, trinkotasun megalitikoa ematen zion. Hegoaldean, elearen orpoan, irtenune txikiago bat; han egurats-teknikariaren etxea ageri zen. Alegia, nirea. Bi eraikinak ibar estu moduko batez elkartzen ziren, non landaredi hezea jori hazten baitzen. Zuhaitzak, elkarren aurka estututa hazitako piztia andana ziren; bata bestearen gorputzetan habia bilatzen zuten. Goroldioak babesten zituen. Lorategietako lahar-hesiak baino goroldio trinkoagoa, belaunetaraino luze: fenomeno bitxia, inondik ere. Enborrak orbantzen zi-

tuen, hiru koloreko legendar batek bezala: urdina, mo-
rea eta beltza.

Han-hemenka barreiatutako haitz kozkorrez ingu-
ratua zegoen irla. Honek ezinezko egiten zuen etxearen
oinetan hedatzen zen hondartza bakarretik hirurehun
metro baino gutxiagora ainguratzea. Horrenbestez, ni-
re ekipajea eta ni neu txalupa batean zamatuta beste ir-
tenbiderik ez zen geratzen. Kapitainak lehorrera la-
guntzea, abegikortasunezko keinu eskuzabala zen. Ezerk
ez zuen behartzen. Bidaian zehar, ordea, aldika belau-
naldi ezberdinetako gizonen artean agertu ohi den el-
kar ulertze horietako bat izan genuen. Hanburgoko por-
tuko auzoetan zuen jatorria, gero ailegatu zen daniar
aberrira. Begiek: horiexek definitzen zuten. Norbaiti be-
giratzen zionean, munduan ez zen beste ezer. Ento-
mologo irizpidez haztatzen zituen norbanakoak, eta adi-
tu izaeraz egoerak. Inork gogork eriarekin nahasi
zezakeen. Nire ustez, hura zuen bere izpirituaren gan-
beran ezkutatutako ideia irekiak erabiltzeko modua.
Inoiz ez zion lagun hurkoari bere maitasuna hitzez ai-
tortuko, baina egintza guztiak eskainiko zizkion. Beti
jokatu zuen nirekin borrero otzanaren adeitasunez. Ni-
gatik ezer egin bazezakeen, egin egingo zuen. Azken
batean, nor nintzen ni? Gizon bat, aukeran gaztea, hai-
ze polarrek zauritu eta baztertutako irla ñimiño batera
destinatua. Han bizi beharko nuen hamabi hilabetez,
erbesteko bakardade batean, edozein itsasertz zibiliza-
tutik urrun, zeregin monotono bezain ezdeus batekin:
haizeen intentsitateaz, noranzkoaz eta maiztasunaz oha-
rrak hartzea. Nazioarteko itsas hitzarmenek hala era-

bakita. Ordainsaria ona zen, jakina. Baina inork ez zuen onartzen halako patua sosen truke.

Kapitaina, ni neu, zortzi marinela eta lau txalupa hondartzara iritsi ginen. Puska baterako lanak zituzten mutilek, urtebeteko hornigaiak ez ezik, nirekin neramatzan kutxa eta ondasunak deskargatzen. Liburu asko. Ederki nekien denbora soberan edukiko nuela, eta nire bizitzaren azken urteek ukatutako irakurgeta bete nahi nuen garuna. Tira, esan zuen kapitainak operazioa motela izango zela ohartzean, goazen. Hondarretik hurreratu ginen, horrenbestez, bera eta biok. Gora egiten zuen bidexka batek etxera ematen zuen. Aurreko maizterra barandak ezartzen ibilia zen. Itsasoak kanporatu eta leundutako oholak, modu soil batez iltzatuak. Bai, buru arrazional batek egina zen hura. Eta sinesgaitza badirudi ere, xehetasun hark bultzatu ninduen ordezkatzera nindoan lagunarengan aurrenekoz pentsatzera. Pertsona hura izaki konkretua zen, eta une hartantxe berak munduan egin zuen ekintzetako bat ikus nezakeen, ustekabekoa izan arren. Harengan pentsatu, eta ozen esan nuen:

—Bitxia da egurats-teknikaria gu hartzera atera ez izana. Pozarren beharko luke ordezkatzegatik.

Kapitainarekin gertatu ohi zitzaizkidan, hitz egin eta segundora mingaina hozkatu nuen: bere ideiek tarte bateko aurrea hartzen zieten nirei. Etxea gure parean zegoen. Teilatu koniko bat, arbelezko teila eta adreilu gorritzko paretekin. Dotoretasun eta harmonia apurrik ere ez zuen eraikin hark. Alpeetan, mendiko aterpe, basoko ermita edo aduanako kaserna litzateke.

Mugitu gabe, minutu luze bateko ikerketan galdu zen kapitaina, arriskua susmatzen duenaren keinuaz. Ekimen guztia laga nion. Haize goiztiarrak etxebizitzaren kantoietako lau zuhaitzen adaxkak mugitzen zituen; Kanadako haritz mota batekoak ziren hauek. Izoztua egon gabe ere, airea gogaikarria zen. Tristezia moduko bat ere bazegoen, hau ere ezezaguna. Arazoa ez zen zer zegoen, ezpada zer ez genuen ikusten. Non zegoen ofiziala? Bere lanbidearen egiteko bati emana lekuren batean? Irlatik paseatzen ari ote zen sinpleki? Gutxika, zantzu txarrak ikusten hasi nintzen. Leihoak txikiak ziren, beira angeluzuzen lodi-lodiak. Egurrezko atarteak irekiak zeuden. Astinduka ari ziren. Ez zitzaidan gustatu. Etxetxo inguratzen, hormak ukitzen, antzinako lorategi bat igarri zitekeen. Erdizka lurperatutako harriekin nabarmendua zegoen muga, elefante batailoi batek egina bezala.

Oso berea zuen keinu bat egin zuen orduan kapitainak: kokotsa jaso zuen, soingaineko urdinaren lepoa arinki itoaraziko balu bezala. Gero, atea bultzatu zuen, eta faraoi hilarri profanatuaren orroaz ireki zen. Ateek hitz egin badezakete, kirrinka hark zera zioen: «Sar zaitezte nahi baduzue, ez da nire ardura izango». Sartu ginen, bai.

Ikuskizunak Afrikako esploratzaileen kronika bat gogorarazten zuen. Inurri tropikal ilara batek gune hura suntsitu zuela zirudien, bizitza irentsi eta objektuak alde batera utzi zituztela. Funtsezko altzariak osorik zeuden. Hondamena bainoago, utzikeria. Gela bakarreko barrutia zen. Ohea bere lekuan zegoen, eta bai-

ta tximinia nahiz enbor menditxoa ere. Mahaia eroria zegoen. Merkurio barometroa, osorik. Sukalde tresnak, desagertuak –ez dakit zergatik, xehetasun hura misterio ikaragarria iruditu zitzaidan–. Nire aurrekoaren zera pertsonalak edota lanbidearen erremintak ez ziren inondik ageri. Utzikeria, ordea, erokeria bitxiren baten emaitza iruditu zitzaidan, hondamendi natural batena baino gehiago. Tristeia izanik ere, bizitzeko leku egokia izaten jarraitzen zuen oro har. Olatuen marmarra argi iristen zen gugana.

—Non utziko ditugu aire eta haizeen ofizial jaunaren gauzak? –esan zuen etorri berri batek, Sow senegaldarrak. Marinelek hondartzatik nire ekipajea ekartzeara lortu zuten.

—Hemen, hemen, hemen barnean nonbait, berdindio –esan nuen kementsu, ezusteko ahots hark eragindako izua ezkutatzearren. Kapitainak marinelen aurka bideratu zuen egoerak eragiten zion atsekabea:

—Arren, Sow, txukundu dezatela mutilek hondamen hau.

Gizonek kutzak utzi eta guztia atontzeko eginahalak egiten zituzten bitartean, kapitainak farora joan gintezen iradoki zidan.

—Agian zure aurrekoa aurkituko dugu –esan zidan marinelek jada ezin entzun gintzaketenean.

Zekienaren arabera, faroan ere nor edo nor bizi zen. Ez zuen zehazki oroitzen herbeheretarrena, frantsesena edo norena zen, baina norbaitena bai. Faroko arduraduna egurats-teknikariaren auzokoa izaki, logikoa eta ulergarria litzateke oso, egoerak behartuta

nolabaiteko adiskidetasuna hasi izana. Alabaina, arrazonamendu hutsa zen hura, ez itxaropena. Egurats-technikariaren kokalekua zein zen azaltzen zigun, baina ez zuen zuritzen etxea hala egotea. Edozein kasutan, oso aproposa zen hara joatea.

Ibilbide labur hartan sentitu nuen ezinegona ongi gogoan dut. Alde batetik, garaiko aldarteari zor niola egingo nuke. Egia da, halaber, ezohiko oihana zela, gutxitan ikusten diren horietakoa. Gizaki-pausoek egin-dako bidexendra batek faroraino ginderamatzan, ibilbide kasik zuzen batez. Goroldio traidoreak lokatz eta zuku beltzeko zuloak ezkutatzen zituenean soilik desbideratzen zen bidezidorra. Zuhaitzen atzealdean ger-tu zegoen itsasoa; kadentzia atono batekin igurzten gin-tuen. Baina okerrena, justuki, isiltasuna zen. Edo hobeto esanda, hotsik eza. Ez zegoen naturari lotutak o melo-diarik, ez genuen ez hegazti, ez intsektu oihularirik. En-borretako asko, ez nolanhikoak, haizearen indarrak okertuta hazten ziren. Ontzitik, oihan zinez hertsia iru-ditu zitzaidan. Gizakien nahiz landareen trinkotasuna neurtzean, distantziak engainatu egiten du sarritan. Ez oraingoan. Hain zeuden elkarren ondoan, ezen zaila baitzen zehaztea zuhaitzak sustrai beretik edo aparte haziak ote ziren. Gure bidea hainbat erreka ziztrinek moztua agertzen zen. Iturri zehatz batetik jariatua bai-noago, menditik gesaldutako uraren itxura zuten. Pau-so luze bat nahikoa zen haiek saihesteko.

Faroaren punta bat-batean agertu zen, zuhaitz al-tueneren gainetik nabarmen. Basoaren amaieran buka-tu zen bidea. Granito soilduzko harroina ikusi genuen,

eta, gainean, eraikuntza. Ozeanoak hiru aldetatik inguratzen zuen. Itsaski egunetan, bortizki joko zuen harriaren aurka. Arkitektoa nornahi zela ere, arretaz egindako lana zen hura. Azalera borobildu eta trinko bat itsas kolpeei hobeki eusteko; Erdi Aroko bost gezi-leiho ongi banatuak; balkoitxo estu bat baranda berrituarekin, mutur zorrotzeko kupula. Bazen ulertzeko zaila zirudien zerbait: balkoiari erantsitako egiturak. Makila eta taket gurutzatuak, sarritan punta zorrotzekoak. Konponketa lanak egiteko aldamiio bat? Ez genuen ez astirik ez gogorik ere hartaz gogoeta egiteko.

—Kaixo! Kaixo! Kaixo! —oihukatu zuen kapitainak, burdinazko atea esku ahurraz kolpatuz. Ez genuen erantzunik jaso, baina bulkada hura nahikoa izan zen atea itxita ez zegoela antzemateko. Pieza sendo-sendo zen. Burdinak zehe bateko lodiera zuen eta berunezko dozenaka iltze zapalekin indartuta zegoen. Hain ziren irmoak bere pisu eta bolumena, ezen biok batera bultzatu behar izan baikenuen baztertzeko. Barruan, argiztapen bitxi bat. Kanpoko argia katedral-ukitua sortuz sartzen zen. Kare geruza batek ozta eusten zion oraindik paretetan, eta hauen forma konkaboetan zuriuneak zabaltzen zituen. Eskailera, azkenik, kiribilean igotzen zen, harriari atzamarkatua. Ikusten genuenaren arabera, azpialde hura biltegi nagusia zen; tresna eta zera kopuru ohargarri bat zegoen bertan.

Kapitainak zer edo zer murmurikatu zuen ahapeka, ez nuen izan entzuterik. Igotzen hasi zen, ausart. Laurogeita hamasei harmailak goiko solairua osatzen

zuen oholtza baten azpian amaitzen ziren. Tranpa laukia bultzatuta, barruan ginen.

Bizileku epela zegoen bertan, primeran ordenatua. Eredua borobil haren erdian, ukondo formako tutuberogailu bat. Atzean, sukaldea izan zitekeena. Zuru-bitxo gehiagok beste solairu batera zeramaten, faroaren makina gelara seguruenik. Horraino, dena zen onargarria; inkoherentzia ordenan zegoen, etxea ordenatzeko moldean.

Gauzak xelebrequi apailatuak zeuden zoruan, horrei jarraituz. Ohikoan mahai edo apaletan ezartzen ditugun objektuak, lerrokatuta zeuden. Kutxen gainean ez zen pisurik falta, estalitakoetan nahiz estali gabekoetan. Adibidez: zapata kaxa bat, eta, zapaten gainean, ikatzezko taula bat. Besterik: petrolio bidoi bat, borobila, metro erdi luzekoa, arropa zikinez betea. Gainean, zur zati bat, arropak estutzen zituena. Hala taula nola zur zatia, estalki inperfektuak ziren; edo nola ere, ez zuten kiratsa ezkututzen, asmoa hori baldin bazen. Irudi luke jabea beldur zela edukiak txorixoen moduan ihes egingo zuten, grabitatetik aske, eta horregatik bermatzen zituela bere biltegitxoak zama sendoekin.

Azkenik, ohea. Pieza eder bat, oheburuaren goialdean burdinaga meheekin. Hiru burusi mardulez estalia, berriz, gizona.

Loaren erdian harrapatu genuen, dudarik gabe. Gu sartzera, begiak irekiak zituen. Baina ez zuen erreakzionatzen. Sator begi txikiekin begiratzen zigun, kliskatu gabe. Burusiek sudurreraino estaltzen zuten,

hartz baten larruazalak bezala. Gela garbi-garbia ageri zitzaigun, bera ez hainbeste. Babes gabeziaren, utzi-keriaren eta basakeriaren arteko ikuskizuna zen hura. Lastairaren azpian pixontzi bat, pixa hotzez mukuru.

—Egun on, itsas seinaleetako teknikaria. Hemen egurats-teknikariaren ordezkoa, zure bizilaguna –esan zuen kapitainak itzulingururik gabe, esku batez etxerako bidea seinalatuz—. Ba al dakizu bera non dagoen?

Kapitainaren hitzek oroitarazi zidaten hondartza-tik kilometro bat eta erdi barneratuta ginela. Distantzia hura Europa eta irla arteko ibilbide osoa baino luzeagoa zela sentitu nuen. Kapitaina berehala joango zela, horixe nire gogoeta.

Ohetik, bilo beltzez estalitako esku bat mugitu zen. Erdibidean, ordea, atzera egin zuen. Gizonaren gelditasunak bere onetik ateratzen zuen kapitaina:

—Ez al didazu ulertzen? Ez al duzu nire hizkuntza ulertzen? Frantsesa hitz egiten al duzu? Niderlandera?

Baina gizonak adi-adi begiratzen jarraitzen zuen. Burusia begitartetik kentzeko lana ere ez zuen hartzen.

Jainkoarren! –egin zuen orro kapitainak, ukabila estutua. Bidaia garrantzitsu bat egin beharra daukat. Bidaia baten erdian nago! Ontzigintza korporazioak eskatuta, nire ibilbidetik desbideratu naiz, gizon hau hemen utzi eta bere aurrekoa eramateko. Ulertzen al duzu hori? Baina egungo egurats-teknikaria ez dago. Ez dago. Non aurkitu jakinarazterik ba al duzu?

Farozainak batari eta besteari begiratzen zigun, hurrenez hurren. Besterik ez. Itsutua, aurpegia gorri, kapitaina tematu zen:

—Kapitaina naiz eta zu epaiketara eramateko aginte osoa dut, ondasun nahiz pertsonen babeserako beharrezkoa zaidan informazioa ukatzen badidazu. Azkenekoz errepikatzen dizut: non dago irla honetan jarduten duen egurats-teknikaria?

—Tamalez, ezin diot zure galderari erantzun.

Isilune bat sortu zen. Harekin komunikatzeari uko egitear geundela, hara non harritu gintuen izaki hark, austriar soldadu baten ahoskeraz, bat-batean. Kapitainak tonua aldatu zuen, apur bat baretuago.

—Ongi, hobeto dago hori. Zergatik ezin didazu erantzun? Inolako hartu-emanik al duzu egurats-teknikariarekin? Noiz ikusi zenuen azkenekoz?

Baina gizona isiltasunean giltzapetu zen berriro.

—Altxatu zaitez! –agindu zuen supituki kapitainak.

Besteak, pixkanaka, esana bete zuen. Burusiak baztertu eta oinak atera zituen. Egundoko gorpuzkera zuen. Mugitzean, ibiltzen ikasi duen zuhaitz sustrai-gabea gogorazten zuen. Ohean jarrita geratu zen, lurrari begira. Larrugorri zegoen. Biluztasuna erakustea bost axola zitzaion. Kapitainak, ordea, begirada gorputzetik baztertu zuen, farozainak ezagutzerik ez zuen ahalke batek hunkitua. Bularra bilozko alfonbra batez estalia agertzen zen, basa-landareak bezala sorbalde-tan gora egiten zuela. Zilborrharen azpialdean basoaren trinkotasuna zuten biloek. Gorputz-adar laxo baina erraldoi bat ikusi nuen. Hura ere biloz estalia egoteak, kasik prepuzioraino, espantarazi egin ninduen. Zertan dira zeure begiak hor, esan nuen nire artean, eta gure solaskidearen aurpegiraino desbideratu

nituen. Tankera klasikoko bizarra zuen, zaindu gabea. Ile ugariko gizon horietakoa zen: bekain trinkoetatik bi zentimetrora hazten zitzaion. Lastairan zetzan, eskuak belaunetan bermatuak, besoak jarrera simetriko batean. Begiak eta sudurra aurpegiaren erdian bilduta zituen, eta, mongol itxurako hezurmalarrekin masail zabalak. Galdeketaz ezaxola zirudien. Diziplina-gatik edo sonanbulismoag atik jokutzen ote zuen horrela, ez jakin. Baina adi-adi begiratuta, imintzio bateg bere barne urduritasuna salatzen zuen: ahoa ireki eta ixten zuen, saguzar baten moduan. Horrek elkarrengandik bereizitako hortzak ikusteko aukera eman zidan. Kapitaina gerturatu egin zen, aurpegia bestearen belarritik zentimetro gutxi batzuetara eduki arte:

—Erotu egin al zara? Ulertzen al duzu zer erantzukizun duzun? Nazioarteko hitzarmenak betetzen saiatzen den misio bat saboteatzen ari zara! Nola esaten dizute?

Gizonak kapitainari begiratu zion:

—Nor?

—Zu! Zurekin ari naiz! Zein da zure legezko izena?

—Batis. Batis Caffo.

Kapitainak, silabak bereiziz:

—Azken aldikoz, Caffo itsas seinaleetako teknikaria, agindu bat da: non dago egurats-teknikaria?

—Ezinezkoa zait galdera horri erantzutea.

—Burutik dago, ziur, burutik dago –amore eman zuen kapitainak, abere kaiolatua bezala hara eta hona. Gure gizonari ez ikusiarena egin zion oster, jite polizialez oro irauliz. Aldameneko gelatxoan sartu zenean,

liburu bat ikusi nuen, oheburutik gertu. Lurrean zegoen, harri batez estalia. Gainetik irakurri nuen. Sola-saldi arinago bat ezartzearren, esan nuen:

—Nik ere ezagutzen dut Frazer doktorearen obra, iritzi sendorik ez badut ere. Ez dakit *Adaxka doratua* pentsamenduaren jenialtasuna ote den, ala berealdiko txatxukeria.

—Liburua ez da nirea, ez dut irakurri.

Zein logika xelebrea. Bi gauzak elkarri lotuta ba-leude bezala esan zuen. Edozein kasutan, hura izan zen dena. Ez nuen lortu hitz egiten jarrai zezan. Mamu gartxuaren jarreraz begiratzen zidan, eskuak be-launetatik kendu gabe.

—Utz ezazu horrela, mesedez! –eten zidan kapi-tainak; ez zuen inongo arrasto interesgarririk aurkitu-. Lagun honek bere lanbidearen araudia ere ez du irakurri. Sutu egiten nau.

Egurats-teknikariaren etxera itzuli besterik ezin genuen egin. Erdibidean, ordea, oihanaren barnean oraindik, maukatik oratuz geldiarazi ninduen kapitainak.

—Lur hurbilena Bouvet irla da, norvegiarrek eurentzat aldarrikatua, hemendik hego-mendebaldera seiehun itsas miliara –eta arrazoizko isilune luze baten ostean–: Seguru al zaude gelditu nahi duzula? Ez dut gustuko. Hau lorontzi bat da, planetako ozeano bakartienean galdutako lorontzia, Patagoniako basamortuekin latitudea partekatzen duena. Edozein batzorde administratiboren aurrean justifika dezaket lekuak ez zituela betetzen gutxieneko baldintzak. Inork ez dizu ezer aurpegiratuko. Hitzematen dizut.

Itzuli beharra nuen? Baietz, horixe adierazten zuen denak. Halako kasuetan, ordea, barne arrazoiak eraman gaitzan uzten dugu. Nire irudiko, lotsagarri geratzeko beldurrak behartu ninduen erabakia hartzera: ez nuen mundu erdia zeharkatu iritsi berritan nire patuari uko egiteko.

—Egurats-teknikariaren etxea ongi dago, urte osorako hornigaiak ditut eta ezerk ez dit galarazten egunerokoak betetzea. Bestetik, litekeena da nire aurrekoa istripu ergel batean hil izana. Agian buruaz besteko eginda, batek jakin. Baina ez dut uste erantzulea gizona denik. Nire iritziz, bere buruarentzat baino ez da arrisku bat. Bakardadeak nahaspilatu egin du, eta, seguruenik, nire kidearen desagertzea leporatuko diogun beldur da. Horrexek azaltzen du bere jarrera.

Hura esanda, egoeraz egindako laburpen bikainak harritu ninduen. Bi alderdi baztertu nituen soilik: nire sentimenduak eta nire aieruak. Kapitainak kobra begiekin begiratu zidan. Gorputza oso arinki kulunkatzen zuen, orain oin baten gainean orain bestearen gainean, eskuak soingainekoaren atzean. Ez nigatik estutu, tematu nintzen. Desengainu batengatik zaude hemen, seguru nago, baieztatu zuen berak. Zalantza baten ostean, batek daki, esan nuen, eta berak erantzun, bai, argi dago baietz, destainak jota etorri zara. Besoak zabaldu zituen, bere errugabetasuna erakusten duen magoak bezala; partida jokatzeari uk o egin dion jokalariaren moduan. Zera adierazten zuen keinua: nik ezin dut besterik egin.

Hondartzara ailegatu ginen. Zortzi marinela ontzira itzultzeko agindua entzuteko irrikan zeuden. Ur-

duritasun epidermiko bat pairatzen zuten, arrazoi zuzenik gabe. Sow senegaldarrak esku-zarta bat eman zidan bizkarrean, animatzearren. Burusoila zen beltz hura, eta bizar zurikoa. Begia kliskatuz, esan zuen:

—Ez mutilei kasurik egin. Berriki errekrutatutako marinela dira, Eskoziako lur garaietatik datoz. Yucatanango kaktus batek eurak baino hobeto ezagutzen ditu itsasoko misterioak eta kondairak. Ez bakarrik zuriak, gorriak ere badira. Eta mundu guztiak dakien bezala, arraza hori tabernetako sineskerien menpe bizi da. Ongi jan ezazu, lan asko egin, begira zaitetz ispiluan zeure buruaz oroitzeko, ozen hitz egin hitzaren ohitura ez ahazteko, eta arduratu zure gogoa asmo xumeekin. Hori da dena. Ongi begiratuta, zer da, Jainkoaren pazientziarekin alderatuz, gure bizitzako urte bat?

Txalupetara igo, eta arraunei oratu zieten azkenik. Erruki eta aztoramendu nahasketa batekin begiratzen zidaten marinelek. Aurrenekoz ostruka bat ikusten duen haurrak bezala behatzen zidaten, edo gerratik itzultzen diren zauritu errenkaden aurreko herritar baketsuek bezala. Ontzia gurdi baten mantsotasunez urrundu zen. Zeruertzean puntutxo bat izan arte ez nizkion begiak gainetik kendu. Konponbiderik gabeko galera zegoen itzaltzen zihoan puntu hartan. Burdinazko eraztun moduko bat sentitu nuen, buru hezurra estutzen zidana. Ezin jakin kaleko oroimenaren oldartzea ote zen, edo presoaren larrialdia, edo, sinpleki, beldurra.

Tarte batez geratu nintzen hondartzan. Kalari dagokionez, oso ongi mugatutako ilargi erdia zen. Ezke-

rrean eta eskuinean harkaitz bolkanikoek inguratzen zuten; gazta bezala zulatutako harri zorrotzak, ertzez bete-beteak, eta euren bolumenak iradoki zezakeen baino pisu askoz arinagokoak. Hareak intsentsu errautsaren itxura zuen, grisa eta trinkotua. Zulo txiki boro-robilek krustazeoen ezkutalekuak salatzen zituzten. Olatuak, haitzen eraginez, hiltzear iristen ziren; apar zuri mintz mehar batek itsasoaren eta lehorraren arteko muga marrazten zuen. Dozenaka enbor ageri ziren, garbi eta leun, tirainak itsasertzean iltzaturik. Antzinako zuhaitz lurreratuen sustraiak ziren horietako batzuk. Artistaren lan zehatza, itsasoak egina; miresgarriak ziren edertasun labirintiko arraro hartako eskulturak. Zerua kolore triste agertzen zen zatika, zilar gordinez edo, are ilunago, ugertutako armaduraren kolorez. Eguzkia garaiera ertainean eskegitako laranja txikia zen, argia atsekabez iragazten zuten betiereko hodeiez estalia. Latitudeagatik zenitera inoiz iritsiko ez zen eguzkia. Nire deskribapena ez da fidagarria. Hauxe ikus nezakeen, ordea. Baina gizon batek ikusten duen paisaia, begiz kanpora, begiz barna ezkutatzen duenaren isla izan ohi da.

ALDIAN BEHIN, ETORKIZUNA IRAGANAREKIN negoziatzen dugu. Harkaitz baztertu batean eserita, hitzarmen bat erdiesten ahalegintzen gara; izandakoaren, porrot handien, eta oraindik etortzeko dagoenaren artean, benetako iluntasuna. Ildo honetan, denboraren, hausnarketaren eta urruntasunaren arteko batuketak mirariak egingo zituelako konfiantza nuen. Beste ezerk ez ninduen eraman. irlaraino.

Goizalde irreal haren hondarrean, puskak hustu, sailkatu eta apailatzen aritu nintzen, kaleko monje baten pentsaeraz. Ongi begiratuta, izan ere, zer izango zen nire bizitza irlan, ermitau enpiriko baten esperientziaz beste? Liburu gehienak aurrekoak utzitako apaletan kabitzen ziren; azken honen berri gehiagorik ez zen igartzen. Hantxe nituen irin eta kontserba zakuak ere, haragi gazia, ezusteko oinazeentzako eter kapsulak, C bitaminako milaka konprimitu, eskorbutoa eragozteko behar-beharrezkoak. Neurketa tresnak,

osorik zorionez, tenperatura erregistroak, bi merkurio-barometro, hiru modulu diakroniko, eta botikatxoa, bete-betea. Gutunak eta eskakizunak gordetzeko 22-E kutxan aurkitutako xeblekeriei dagokienez, hainbat alor zientifiko eta sozialetan egindako ahaleginak aipatu beharko nituzke.

Bizitza urriko toki hartako egonaldia profitatuz, Kiev-eko unibertsitateko errusiarrek esperimentu biologiko bat egiteko eskatu zidaten. Marraskari txikiak ederki ugaritzen omen ziren irlaren koordenadetan, zergatia sobera ulertu ez banuen ere. Siberiako arraza nano eta artiletsu bat heztea proposatu zidaten, klima hartarako oso egokia omen zena. Arrakasta edukiz gero, irlara heldutako ontziek haragi freskoa aurkitu ahal izango zuten. Horri buruzko liburu pareta utzi zidaten, non, laguntza grafiko handiz, perituei untxitxo artiletsuak zaintzeko argibideak ematen baitzitzaizkien. Baina ez neraman ez kaiola ez untxi: ez artiletsu, eta ez soildu ere. Oroitu nuen, hori bai, kapitainak eta biok erregosiengatik sukaldaria zoriontzen genuenean hark egiten zuen algaratxoa, eta erregosiok «Untxi errusiarra Kieveko saltsaz» izenez agertzen zirela.

Berlingo Elkarte Geografikoak formolez betetako hamabost pota erantsi zizkidan. Argibideen arabera, arren eskatzen zitzaidan potoak «tokiko intsektu interresgarriz betetzea, betiere *Hiprometrido Halobates* eta *Quironomido Pontomyia* motakoak balira, uretik ihes egiten ez duten horietakoak». Ohiko eraginkortasun germaniarra: ohar-bloka zeta iragazgaitzez babestua zetorren. Nire kultura eleanitza nahikoa zabala ote zen ez

zekitenez, argibideak zortzi hizkuntzatan idatziak zeuden, finlandiera eta turkiera barne. Letra gotiko larriz, zera ohararazten zidaten, formol potoak Alemaniako Estatuarenak zirela, eta «ontzi baten edo gehiagoren kalteek nahiz hausturek» zegokien zigor administrati-boa izango zutela. Azken orduko eranskin batek, ordea, laguntzaile zientifiko izateak zigorretik libratzen ninduela esaten zidan; horra lasaitasuna. Indulgentzia handia. Zoritxarrez, inolako ataletan ez zitzaidan zehazten zein itxura zuten *Hiprometrido Halobates* edo *Quiro-nomido Pontomyia* horiek, tximeletak ala kakalardoak ote ziren, ez eta zeintzuk ziren horien artean ustez interesgarri, eta zergatik.

Lyongo merkataritza-enpresa batek, ontzigintza kon-painiaren elkartekidea, mineralogiaren atalean eskatzen zituen nire zerbitzuak. Bere eskakizuna analisirako eta ikerkuntzarako tresna txiki batez hornituta zetorren, bai eta hau erabiltzeko eskuliburu batez ere. Ehuneko hirurogeiko purutasunaz haragoko urre meategiak aurkituz gero, «premiatz, albait azkarren» jakinarazteko eskertzen zidaten; kasu horretan bakarrik. Jakina. Urre meategiren bat aurkituz gero, esan gabe doa, Lyongo bulego batzuetaraino joango nintzatekeen, horixe egingo nukeen, beraiek jabe erregistroa egin zezaten. Misiolari katoliko batek, azkenik, aspaldiko idazkera batez, bertako indigenek erantzuteko galdera-sorta bat bete nezala eskatzen zidan, «zuhurtasun handiz eta santu-pazientziaz» bete ere. «Irlako printze bantuak oso herabeak badira, ez zaitez adoregabetu», gomendatzen zidan. «Predika ezazu adibideaz eta erreza ezazu arro-

sarioa belauniko. Horrek fedearen ibilbidea jarraitze-
ra bultzatuko ditu». Zalantzarik gabe, misiolariak ni-
re egitekoari buruzko informazio gabezia larria pai-
ratzen zuen, non zaila nuen erreinu edo errepublika
banturik aurkitzea. Azkenik, irekitzeko bi kutxa bes-
terik geratzen ez zitzaizkidala, ezusteko azal hura azal-
du zen, gutuna.

Irakurri gabe hautsi nuela esatea gustatuko litzai-
dake. Ezin izan nuen. Gertakarien ordena ondo oroi-
tuko nuen, hainbat egun geroago ere. Zergatik? Bada,
gutun hark sortutako amorruren erruz bi kutxa itxiez
ahaztu nintzelako. Ez nuen, beraz, haien edukia az-
tertu, eta horrek nire heriotza eragin zuen ia.

Nire antzinako gogaideena zen. Gutunak txintik
ere ez zioela; horrexek atera ninduen gehien nire one-
tik. Egiari inolako arrakalarik ez uzten ahalegindu zi-
ren egileak; ozarkeria erantsirik ere ez zegoen. Ez zi-
daten gorrotorako arrazoirik eman nahi, eta, hain justu,
jarrera hura zen gorrotagarriena. Baina okerrena, or-
dea, hauxe zen: nolako temaz eta zolitasunez eskatzen
zidaten isiltasuna. Zerak estutzen zituen soilik, euren
aurka, etorkizunean, eurekin iraganean egin nuena
egitea. Betiko jarrerari eusten zioten, temati, nire jo-
kabide desertorea arbuiatuz. Etxera itzultzea erabakiz
gero, errehabilitazioa ere eskaintzen zidaten. Nire ha-
serrea nahikeria pertsonala zela uste zuten zinez! Gu-
tun bat irakurtzen ari nintzelakoan, zikoizkeriaz be-
tetako katalogoa irakurri nuen. Bederatzi mila
kilometrora iraindu nituen, baiki. Ez nintzen tentela,
ordea. Nire haserreaz harago, ez nuen jende multzo

bat madarikatzen, iraganera lotzen ninduten senti-
menduak baino. Ez nengoen nire irlatxoan gatibu, ni-
re memorian baizik. Irlan aurkitzen baldin banintzen,
militantziagatik zen; xelebrea da gero: gutun batekin
hasitako militantzia hura, azkenik, beste batekin bu-
katu zen.



Irlandako umezurtz zorionekoenak Blacktorne Insti-
tuzioan sartzen zituzten. Irlandako umezurtzak arris-
ku potentzialtzat, matxinatuen kanoi bazkatzat zituen
Ingalaterrak. Blacktornek, gu arriskurik gabeko pro-
letario otzanak bilakatzeko misioa zuen. Marinelak,
batik bat. Lanbide sintomatikoa, ezen honela itsasoan
barna bidaltzen baitziren jaiotzez susmagarriak zire-
nak, eta, bidenabar, flota ingelesean giltzapetzen zi-
tuzten, ur gaineko presondegi. Dohain gehien agertzen
zituzten Blacktorneko ikasleei maila ertaineko ikas-
ketak egiten uzten zieten. Nirekin hala gertatu zen, eta
Itsas Logistikako Teknikari bilakatu nintzen, prime-
rako ILT erdipurdikoa. *First Class* nintzen, ordea, Be-
re Maiestate Txit Gorenak emandako diplomaman jaso-
tzen zenez. Zintzo izatearren, aitortu beharko genuke
Blacktorneko pedagogoa ez zirela horren eskasak.
Ozeanografiaren eta meteorologiaren oinarritzko eza-
gutzak irakatsi zizkidaten. Bai komunikazioak ere. Hu-
ra izan zen okupazio ingelesaren abantaila bakarra:
hagitz katoliko agertuta ere, nahiago nuen morsea la-
tina baino. Gertatzen zen, ordea, harrokeria ingelesak

muga guztiak hausten zituela. Ingalaterrak bere kolonietako biztanleak txakurrak bezala tratatu ditzakeela uste du. Are zitalagoa da, ordea, mahaiko papurrak jaten dituzten txakurrei leialtasuna exijitzea. Marinel gisa ontziratu nahi gintuzten, Irlanda osoa hondoratzen ari zen bitartean. Eguraldi iragarleen modura zerura begiratzea nahi zuten, gure denbora eta lurra lapurtzen zizkiguten bitartean. Eta ez zitzairen buruan sartzen matxinatu gintezen.

Astean birritan Blacktornetik hirira joaten nintzen; gaelikoko eskoletan izena emana nuen. Berez, eskolak ez zitzaizkidan askorik interesatzen. Errepublikanoekin bitartekari aritzeko modua ematen zidan, ordea, eta ez nintzen inoiz aurreneko letretatik pasatu. Nirekin Tom izeneko mutiko bat etortzen zen. Eritasun sendaezin bat pairatu arren, bazuen umezurtz-etxeetako izaera alai hori.

—Irlanda osoko tuberkulosorik abertzaleena naiz —esaten zuen, gustuz. Eta barre egiten zuen.

Mezuak eramaten genituen soinean. Txirrinduz joaten ginen, eta ginena irudi genuen, folklore-talde baten bilkuretara zihoazen Blacktorneko umezurtz txi-roak. Aldika, soldadu kontrol batek geldiarazten genituen; antzararen kaka koloreko bere uniformeeekin, paisaiaren berdetasuna hausten zuen. Sarjentu bat oroitzen dut oso ongi, idiaren begirada zuena.

—Geldi. Zenbaki bat nahi dut! Zenbat irlandar malapartatu zarete? —agertzen zuen bere burua, bi arte zenbatzen ez baleki bezala.

—Gu bakarrik —erantzuten zuen Tomek tinko.

Motxila, gaeliko kaier, artilezko txano eta guzti nahasten zizkiguten, baita zapata eta galtzerdi luzeak ere. Ez zuten inoiz ere ezer aurkitzen. Baina nor edo nork salatu egin gintuen, antza. Egun batez, kontrolaren aurrean gelditu eta segidan sumatu genuen giro desberdina. Soldadu eta idi aurpegiko sarjentuaz gain, ofizial ingeles bat zegoen. Makila bat baino zurrunago, begi gris garden haiekin eta zetazko ahots baten peko ankerkeria harekin. Tira, ofizial ingeles guztiak bezalako ofizial ingeles bat.

—Geldi. Zenbaki bat nahi dut! Zenbat irlandar malapartatu zarete? —esan zuen betiko sarjentuak.

—Gu bakarrik —esan zuen Tomek.

—Ez —esan zuen ofizialak —. Zuek eta bizikleta.

Hantxe bertan desmuntatu zuten. Nire bizikletaren burdinazko hodiaren barnean gutuna aurkitu zuten. Errepublikanoen mezu bat besterik ez zen, bilera klandestino baten atzerapena iragartzen zuena. Nahikoa zuten.

Epaiketa ikuskizun hutsa izan zen. Epailearen ileordeak, belus granateak, kaobazko oholtza; guzti-guztia bi umerentzat. Barrokotasunak auzitegia bera bere epaietatik absolbitzeko funtzioa zuen. Nik zorte handia izan nuen, zorte bidegabea. Abokatuak, Blacktorneren soldatapekoa bera, bi bizikleta baina ohar bakarra zegoela argudiatu zuen. Horrenbestez, bi akusatuetako batek errugabea behar zuen indarrez. Defentsarako ildo baina bago, erregua zen, epailearen onginahiari irekitako arrakala bat. Nolabaiteko ondorioa izan zuen, ordea. Garai hartan Blacktorne insti-

tuzio kolaborazionista eredugarri gisa ikusia zegoen oraindik. Ez zioten ospea kendu nahi bere jendaila epaituz. Azkenean, niri zegokidanez, epaileak bistako umilazio bat besterik ez zuen nahi: irlandar kontuari buruz ezer esatekorik ote nuen galdetu zidan. Horrekin traizio egitera bultzatzen ninduen.

—Irlanda eta Ingalaterra betirako isobara lerro berberengatik lotuak egongo diren uste oso eta irmoa dut.

—Ikusten duzu, jauna? —inprobisatu zuen abokatuak—. Blacktorneko ikasle bikain bat, Itsas Logistika-ko Teknikari etorkizunean. Ez genuke utzi behar gaztaroko harrokeriak bere karrera geldiaraz dezan.

Tom ere irmoagoa izan zen:

—Nik uste dut, jauna, isobara lerroek ere ezin izango dutela Irlanda Ingalaterrara lotuta eduki.

Abokatuak Tom gaixorik zegoela hutsalki argudiatu beste irtenbiderik ez zuen izan. Ni isun batekin zigortu ninduten, errepresalia garbia. Tomi bi urteko kartzela zigorra jarri zioten, Deburghen; hantxe hil zen, biriketarik gaixo. Tirania zibilizatuetan ohikoa da hori. Bi gizaki zuzen sugarrekin mehatxatzen dira aurrenik, segidan bat askatzen da, eta honela, egon ez dagoen indulgentzia itxurak egiten. Epaiketa hartaz, ordea, beti oroituko dut Tomen jarrera. Bizikletaren jabetzat jo zuen bere burua. Alegia, errudun. Bazekien presondegiak akabatu egingo zuela eta, ahozko saioaren ondoren, amorratua zegoen nirekin. Zergatik? Nire erantzun baboaz, epailearen gehiegikeria akuilatuz, bere sakrifizioa alferreko egitera arriskatu bainintzen.

—Irlanda osoko abertzale tuberkulosoena naiz —aldarrikatu zuen epaiketaren bezperan, bere usuzko esaldia aldatuz. Bera gaixo kronikoa zenez, ni borrokarako baliagarriagoa izango nintzen. Arrazonamendu enpiriko honek ez zuen eztabaidarik ametitzen. Bere gorputza kausa baten abangoardia baino ez zen, eta horrenbestez, sakrifikagarria. Tomek, beste hainbatek bezala, armatzat zuen bere patu pertsonala: ongi apuntatzea besterik ez zen behar. Gure garaian, gainera, eskuzabaltasuna beste bala bat gehiago zen. Atzeraka begiratu eta, oraindik, begi bustiko txita bi ikusten ditut. Baina ekintzaile onek gaztetasunaren akatsa edukitzea behar dute. Hemeretzi urte genituen.

Blacktornetik ateratzean adin txikikoa nintzen artean eta zaintzaile bat jarri zidaten. Orokorrean zaintzaileak sendi txirokoak ziren; mutikoa emantzipatu bitartean etxean hartzeagatik administrazioak emandako diru-laguntza: horrexek pizten zuen euren interesa. Zortea izan nuen beste behin. ILT tituluarekin bizitzari aurre egin diezaiokeen, baina zaintzaile hura gabe ez nintzatekeen inoiz Blacktorneko mutiko bat izatetik pasatuko.

Nahiko lagun xelebrea zen; franko-masoia, astronomoa, errusierako itzultzaile ona eta poeta txar-txarra. Aurreneko egunetik jabetu zen nire baitan habia egiten zuen izaera matxinoaz. Eginahal handiak egin zituen neroni egun batez armada errepublikanoan sartzea galarazteko. Kolaborazionismoagatik? Ez. Abertzale isil horietakoa zen, eta, halaber, bortxakeria sakrilegiotzat zuenetakoa.

Berak landutako ikasketa programa bukatu arte lana bilatzen hastea eragotzi zidan. Ezartzen zizkidan ariketen artean baziren xebreak eta bai oso xebreak ere. Idazlan politikoetan, tankera honetako izenburuak ugariak ziren: «Zesarren, Tsarren, Kaisarren eta britainiar parlamentarismoaren botere politikoa justifikatzeko giza ergelkeriaren oinarriak» edo «Eman itzazu sei arrazoi belgikarrek Estatu bat merezi ez dutela argudiatzeko eta beste sei quebectarrek Estatu bat merezi dutela arrazoitzeko, eta alderantziz» edo «Aldera ezazu Monomotapako inperioaren historia gaitaina batekin». Ez zuen inoiz Irlandaz zuzenean hitz egiten, ordea.

Proba guztiak ez ziren idatziz konpontzen, gehienak bakarkako jarduera praktikoak ziren. Bazegoen bat, adibidez, zeina zehazki sei minutu eta hogeita hamar segundoz belaze baten erdian jartzean baitzetzan. Bitarte horretan, nire betebeharrak, xingola eta hariz poliki mugaturiko errektangulu txiki batean zeuden bizitza forma guztiez oharrak hartzea zen. Has tapenean belarra baino ez nuen ikusten, baina gutxi-ka intsektu igokari, hegalaria eta lurpeko sorta sinesgaitz bat azaltzen hasi zen. Dena bizi zen, baita haizea ere, eta guztiak agertzen zuen hitzez deskribatzea gaitza den batasun bat. Nire tutorearenak, egun hartan: Sei minutu eta hogeita hamar segundo izan dira, imajina ezazu hogeita hamaikagarren segundoa idatziz. Idazlanaren izenburua: «Behatutako errektanguluaren ausazko elementuak». Ariketa gainditu ezean, berriz eginarazten zidan, besterik gabe. Infinituraino, hori bai,

beharrezkoa suertatuz gero. Idazlan hark hiru hilabete hartu zizkidan. Behin eta berriz errepikatu nuen, harik eta, egun batez, zera idaztera mugatu nintzen arte: «Errektanguluaren ausazko elementu bakarra errektangulua bera da».

Gero, errektanguluaren belar txarrak. Poliki garbitu beharra zegoen. Belar txarrak landare onuragarrietatik bereizteko agindu zidan. Inolakorik ezagutzen ez nuenez, errotik edozein atera aurretik berari galdetzera behartua nengoen. Hau ez da belar txar bat, zioen batzuek, hostoak irakin eta infusioak egin ditzakegu. Hau ere ez, zioen beste batzuek, basa-zainzuriak dira eta, horrenbestez, jatekoak, areago, on-onak. Hau ere ez, nolatan uler daiteke belar txar bat izatea maiatzean lore eder-ederrak ematen baditu?

Azkenerrako landare bakar bat geratzen zen. Inolako baliorik gabekoa zen, inolako sekreturik ezkutatzen ez zuena. Hosto ilunak, zorrotzak eta toxikoak, enbor gogor eta itsusia. Hasperen egin zuen: ados, landare ezin txarragoa, baina errotik aterata, zein zentzu edukiko lukete besteek? Inolakoa ez, esan nuen nik. Beraz, ze ondoriotara iristen zara? Belar txarrik ez dagoela. Eman ezazu gainditutzat ariketa.

Beste proba batzuk: bi egunez lagun bati jarraitu, norberaren aukerakoa, eta haren hitz, iritzi, jarraera, jokabide nahiz intimitate bakoitzaren oharrak hartu. Haurraren gaiztakeriaz, bera aukeratu nuen; ez zuen protestarik egin, eta, azkenean, lagunaren balorazio kritikoa egiteko exijitu zidan. Behin inor sakonki ezagututa epaitzea ezinezkoa zela eran-

tzun nuen nik. Eman ezazu g ainditutzat ariketa, izan zen erantzuna.

Mundu honetan bi jokabide mota daudela, hori izan zen erakutsi zidan guztia: bizitza hautatu ala heriotza hautatu. Gizon bat ikazkinetan umilena izan zitekeen eta bizitza hautatu; beste bat bere aberriko eta garaiko literatur gizon famatuena izan zitekeen, eta heriotzaren bidea hautatu. Ez zuen axolarik. Nik legezko adin nagusitasuna erdietsi eta hiru egun geroago hil zela oroitzen dut. Hil-ohean agurtu ninduen, negozio emankor bat uzten duenaren patxadaz. Deuseztatzen zuen eritasunaz, besteren obrez ari den kritikaria bezala hitz egiten zidan.

—Azaldu pittin batez zure etorkizuneko egitasmoak, nire adiskidea —amaitu zuen.

—Nolatan egin diezadakezu hitz modu horretan hiltzen ari zaren bitartean? —aurpegiratu nion, negar malko berotan.

—Zerk pentsarazten dizu ni bezalako jendea hil egiten dela? —egin zidan errieta.

Egun hartan ate beretik eta betirako atera ginen biok etxetik.

Gizon haren eginahalak birritan izan ziren alferrikako, nolabait ere. Ariketekin uztartzen zituen irakurgaiak, munduaren zakartasunetik babesteko xede zutenak, jada meharregia zen larruazal honi sentikortasuna erantsi zioten. Ez zen izan bere errua. Berari esk er, jadanik ez nintzen Blacktornetik atera zen gaztea. Baina bere irismenetik kanpoko faktorea zen Irlandak lehen-go berbera izaten jarraitzen zuela. Zertarako balio du

munduko gizonik argienak gaez eguzkia seinalatzeak? Bere pedagogia errealitatearen kontrako noranzkoan zihoan. Hortaz, Tomek bete gabe utzi zuen amodio guztiarekin besarkatu nuen kausa errepublikanoa.

Mugimendu errepublikanoak besoak soberan eta garunak faltan zituen. Gazte izanagatik, ikasketak nituen eta baita gizarte kultura arraro bat ere. Zuzendaritzak buruz buruko borrokan baino nahiago izan ninduen logistikan erabili. Beti uste izan dut patu dramatikoena ironiak idazten dituela: Blacktorneko Itsas Logistikako Teknikaria, *ILT First Classa*, Teknikari Logistiko Subertsibo bilakatu zen, TLS aparta, izatez. Klandestinoen munduan sartu nintzen berehala. Ondorengo urteetan, ni harrapatzeko balioko zuen edozein arrastorengatik saria eskainiko zuten ingelesak. Aurrenik hamar librako balioa jarri zidaten. Gero hamabost izan ziren. Gero hogeita hamabost libra eta hamabost xiling doi-doi –ingelesez kontabilitate-zehaztasuna oso sofistikatu izan daiteke–, eta, azkenik, berrogeita bost. Lastima. Ez nintzen inoiz berrogeita hamar libra baino gehiago balio zuten buruen klub murriztuan sartu. Pentsatzen dut ez nuela merezi. Ez nintzen, ez ideologo bat, ezta jeneral bat ere. Buruzagien eta herrialde guztian sakabanatuta zeuden borrokalarien arteko artekaria baino ez nintzen. Baina, ordurako, nire kokapena oso arriskutsua zen. Aldiro, ingelesak iritsi baino minutu eskas bat lehenago egingen genuen landetxetatik ihes, lastategiko leihotik, ari-eketan. Arrasti batez tirokatu ere egin gintuzten, jada zeruertzean galtzen ari ginela. Gau osoan ibili

zitzaizkigun segika. Irlanda zaharreko arbaso doha-tsuok, noizbait paisaia betetzen duten harrizko hor-mak eraiki zituzten horiexek: eraikinon atzean babestu eta euren labirintoetatik galdu nintzen. Horrek frogatzen du gerretan iraganeko eta oraineko indarrak bo-rrokatzen direla. Irlandar peto bezala, porrot bakoi-tzaren ostean, hurrengo porrota prestatzen aritzen ginen kartsuki. Termitaren tema hura izan zen, ordea, azkenerako etsaiari hatsa lapurtu ziona. Egun zorion-tsua izan zen. Egun hartan, Dublinen paseatzen ari nin-tzela, ulertu nuen ordurako ez neramala kamuflaje jan-tzia, kalek oa baizik. Desberdintasuna ez zegoen jantzietan, ordea, desberdintasuna zen ez nuela bel-durrik. Ingelesak alde egiten ari ziren.

Esan dut egun zoriontsu bat izan zela, bat eta ba-karra. Berehala mundu triste bat azaldu zitzaidan. Gu-re buruzagiek ingelesan ankerkeria simetrikoz gober-natzen zuten. Baina honelako errebelazioek ez dute kolpe batez eztanda egiten; onartzeari uko egiten dio-gu eta mantsoki ezartzen dira. Azken batean, zein des-berdintasun zegoen Buckinghamgo jauregiaren eta go-bernu berriaren biltzarren artean? Boterea edozein ingeles jeneralen irizpide praktiko, anker eta bihotz-gogor berberarekin ezartzen zuten. Hainbeste gaitze-tsi genuen ordenari eutsi besterik ez zuten egin. Eu-rentzat Irlanda ez zen xede bat, gobernu eskuratzeko argudioa baizik. Baina kontraesan larri batekin egiten zuten topo: Tom, Tomen sakrifizioa, Tom guztiena.

Gure aberria ez zen geografia hutsa, etorkizun ideia bat zen. Gure abertzaletasunak ez zuen uste gizon eta


emakume irlandarrak gizon eta emakume ingelesak baino hobeak zirenik. Edo irlandar patatak ingeles patatak baino hobeak zirenik. Ez. Ingeles inperioaren maltzurkeriari mugarik gabeko eskuzabaltasuna kontrajarri genion. Soldadu etsaiak planetako interes ilunenez zuzendutako giza-kartutxoak besterik ez ziren. Askatasunaren kontzientzia handiagoz borrokatzen ginen gu. Ingelesak kanporatzea mundu desberdin baten hitzaurrea izan behar zuen horrenbestez, erneagoa, zuzenagoa. Aldiz, Irlanda berriaren buruzagiak okupatzaileen izenen ordezkariak jartzera mugatzen ziren. Zapalkuntzaren koloreak aldatu zituzten, besterik ez. Eldarnio likits bat zen: ingelesak Irlandatik ateratzen ari zirela, gobernu berriak bere burkide zaharren aurka tiro egiten zuen.

Nola zitekeen, galdetzen nion neure buruari, Ingalaterraren aurkako gerran hamarkadak, mendeak egin ostean, lehen askatasun hatsa elkarren artean akabatzeko baliatzea? Non ezkututzen ote zuen gizakiak oinarrizko printzipioak traizionatzeko egundoko ahalmen hori? Administrazio berriaren kargu txiki bat errefusatu nuen. Ez nintzen borrokatu Britainiar Inperio ahalguztidunaren aurka, hura erreplika ñimiño batez ordezkatzeko. Ezin nintzen sartu matxino berrien zerrendan ere. Gerra zibil bat ez da kausa bat, hondamen bat da: sinesgaitza dirudien arren, Ingalaterra herrialdetik kanporatu eta urtebete geroago, azken guda osoan baino irlandar gehiago hila zen jada. Inork ez zuen pentsatzen bakeaz gozatzean, ez gobernu berriak, ezta matxinoek ere. Bizitza emateko prest izan nin-

duten haiek erabateko ezezagun bilakatu ziren kolpez. Gizonek armak ezkutatzen zituzten iraganean; orain, ordea, armek gizonak ezkutatzen zituzten. Hain gertuko uste izan nituenetatik bereizten ninduen itzelezko distantziaz ohartzea izan zen jasangaitzena. Ezin nituen gorrotatu. Okerragoa zen: ezin nituen ulertu, sinpleki. Selenitekin hitz egitea bezala zen. Nire aberria ez zen inoiz nirea izan. Eta izan zitekeenean, atzeritar sentitzen nintzen. Lorik gabeko gau batez Tom gogoratu nuen. Zer egingo zukeen berak? Nik bezala pentsatuko zukeen? Matxinadari jarraitu ala, agian, gobernu berriari atxikiko zitzaiokeen? Goizean ondorio bakarrera iritsia nintzen: Tom hila zegoela.

Ez nuen kausa bat abandonatu, kausak ni abandonatu ninduela baieztatu daiteke. Nire baitan sinesmen sinple bat baino zerbait gehiago hil zen. *Itxaropena* hitzaren esanahi guztiak galdu nituen. Izan ere: Irlandaren historia beti izan da matxinada baten historia, matxinada zuzenaren agerpen garbiena. Eta irlandar kausak horren gardenki porrot egin bazuen, nekez egingo zuen beste edozein aurrera. Gizakiok halabeharrez errepikatzen den mekanika ikusezin baten gaitibu garelako frogatzen zuen horrek guztiak.

Hortik aurrera galdera bat besterik ez zitzaidan azaltzen: gizakion zorigaitza betikotzen duen bortxazko zirkuluak zuzendutako munduan gelditu nahi ote nuen? Nire erantzuna ezezkoa zen, ez inoiz eta ez inon; horrenbestez, gizakirik gabeko mundu batera ihes egi-tea hautatu nuen. Ez nintzen jada legearen iheslari bat. Gauza handiago, askoz handiago batez nenbilen ihesi.



Irlandatik kontinentera pasatu nintzen. Nora nindoan baino nondik nentorren nekien hobeto. Frantziatik Belgikara eta handik Holandara, mugarririk gabe eta betiko nora ezean ibiltzeko burutazio lausoaz. Ez nuen inoiz pentsatuko nire ILT tituluak inolako zerbitzurik egin ahal izango zidanik.

Nazioarteko itsas korporazio batek Amsterdamen bertan zuen egoitza. Itsasorako langileak biltzen zituzten, itsasoz haraindiko eginbehar mota ororentzat. Zerrenda luze-luze batean eman nuen izena, baina ILT tituluak eta hautagai faltak itxaronaldia laburtu zuen.

Langileen arduraduna holandar masail gorri bat zen, aurpegia kolore moreko zain txikiez bete zuena. Egurats-teknikari postua premiaz bete behar zuen. Non? Hasieran gizonak galdera saihesten zuen. Eta elkarrizketak aurrera egin ahala, ohartu nintzen ez nuela nire iaioitasuna frogatu beharrik, nire solaskideak lanpostua saltzeko eginahalak egiten zituela. Azkenean, atzamarraren haragian asko sartzen zen beira arrosazko azazkal batez, irla seinalatu zuen. Azazkalak huts egiten zuela pentsatu nuen: ez nuen ezer ere ikusten, ez ezer txikirik, ez inolako azalera marrazturik, ez inolako orbainik ere. Baina euren eskala handieneko hego atlantikoko mapa zen. Adi-adi begiratu nuen. Irla koordenaden bidegurutzean bertan zegoen. Horrexegatik ezin nuen ikusi: hain zen txikia, ezen latitude eta longitu-

de lerroek tintaren elkargunearen azpian ezkututzen baitzuten.

—Eta oso jendetsua al da bertan bizi den talde teknikoa? –galdetu nuen.

—Ez duzu bizitza sozial askorik egingo –esan zuen kargudunak.

Nire izena inolako erregistrotan ez egotea izan zen ezarri nuen eskakizun bakarra. Hitz egiten bukatu aurretik onartu zuen. Nire sinadura kontratuan idatzia ikusi zuenean, ezin izan zuen poztasuna disimulatu. Engainatzen ari zitzaidala uste zuen berak.

GUTUNA IRAKURRI OSTEAN ez nuen gogorik paketeak irekitzen jarraitzeko. Zurezko aulki batean eseri nintzen, distantzia handiegi bat zeharkatu duenak bezala. Zer egin nezakeen? Tenore txarra abailtzeko. Tristezia ez da geldi egonez konpontzen, hortaz, indarrak mugiaraztea hautatu nuen. Farora hurreratzea ona zatekeela pentsatu nuen. Kargudunarekin ez nintzen agian berradiskidetuko, baina bederen ariketa egin eta oroitzapenak uxatuko nituen. Lagun haren zoramena aztoramendu iragankor hutsa izan zitekeen. Desenkusatzeko prest nengoen. Ongi begiratuta, kapitaina begiramen eskasez eta oilar oihulari baten harropuzkeriaz sartu zen haren etxean. Eta lotan harrapatu genuen. Farozain arduratsuak egunez egiten du lo, eta gauetz lan, argien iraunkortasuna zelatatuz. Gu, aldiz, ontziko gizakion arteko kontaktu nabarmen eta kasik likitsera ohituak geunden. Bera ez. Imajinatu dezagun

zer ustekabea harena bi ezezagun azaltzen ikustean, han, munduaren amaieran.

Irlaren hats guztia oihanera murrizten zen. Baina landaredi haren barnealdean zenbat eta gehiago ibili, orduan eta gehiago lotzen nuen sor-egoera moduko batean dagoen sasi-bizitza beldurti batekin. Sastrakek, adibidez, adaxka lodi eta itxuraz sendo batzuk aurkezten zituzten. Okertzean azenarioak bezala hausten ziren. Egunen batean, negua iritsi eta elurrak kolpez birrinduko zituen zuhaitzak. Oihan hark bataila aurretik porrota sinatzen duen armada gogorarazten zuen. Erdibidean, ordea, marmolezko lauza bat ikusi nuen, brontzezko tutu soil bat zuena, eta gelditu egin nintzen. Pareta natural baten aurka zutitzen zen lauza, eta goroldio beltz batek inguratzen zuen. Toki ona zen, beste goragunerik ezean, lauza hark arro hidrauliko bat biltzen baitzuen. Ur-turrusta atergabea jariatzen zen kanoitik. Haria burdinazko hontzi handi baten gainean erortzen zen. Gainezka egiten zuen. Beste batek, hutsik, ondoan itxaroten zuen. Faroa hornitzen zuen iturriaren aurrean nengoela ulertu nuen.

Xelebrea da nola aukeratzen ditugun gure begirada erakartzen duten objektuak. Nire aurreneko paseoan, kapitainarekin, iturria oharkabean pasatu zen. Ez genion begia ipini, goi mailako zeinuak bilatzen baikenituen. Baina orain bakarrik nengoen, guztiz bakarrik, eta ura goitika botatzen zuen brontzezko tutu bat interes handiko objektua zen. Hurreratu eta kanoiaren gainean letra irregularreko inskripzio bat ikusi nuen. Honela zioen:

*Batis Caffo hemen bizi da
Batis Caffok egin zuen iturri hau
Batis Caffok idatzi zuen honakoa
Batis Caffok badaki bere burua defendatzen
Batis Caffok ozeanoak menderatzen ditu
Batis Caffok nahi duena dauka eta daukana
baino ez du nahi
Batis Caffo Batis Caffo da eta Batis Caffo Batis
Caffo da
Dixit et fecit*

Atsekabetu egin nintzen. Adio konkordia itxaropenei. Hilarri hura gogo zatikatu bezain berreskuraezin batez ari zitzaidan. Baina ez nuen egiteko hoberik, eta farorako bideari jarraitu nion. Eraikuntzara iristerakoan, atea itxita aurkitu nuen. Kaixo, kaixo, oihukatu nuen, kapitaina imitatuz.

Inork ez zidan erantzun; iristen zitzaidan hots bakarra harkaitz hurbilenak urratzen zituen olatuena zen. Iturriko hitzetan pentsatu nuen. Gizon hantustea behar zuela bururatu zitzaidan, bere izenaz hasten baitziren idatzitako esaldi guztiak. Nortasun meharregi batek menderatzen zuelako, edo egolatria bizi bategatik akaso –bat egin ohi duten akatsak, biak ere–, bere nortasuna berresteko beharra zuen. Estrategia gehiagoz hasi nintzen laguntza eskatzen, bere izena behin eta berriz errepikatuz:

—Batis! Batis! –oihukatu nuen eskuekin tronpeta eginez—. Batis, Batis! Kaixo Batis! Kaixo! Ireki, mesedez. Egurats-teknikaria naiz.

Erantzunik ez. Atetik gora, sei edo zazpi metrora, balkoia zegoen. Bere irudia azalduko zen itxaropenaz begiratzen nuen. Horrela ez zenez, beste gauza batzuetan ipini nuen begia. Ikusi nuen, adibidez, balkoiaren oinarrian egurrak erantsi zituztela. Lehen ikustaldian oinarritzko aldami moduko batean pentsatu nuen. Oker nengoen. Ez ziren paretaren eta balkoiaren artean triangela osatzen duten burdinazko euskarrien forma berekoak. Taketak puntazorrotzak ziren oso. Balkoi guztia zegoen egitura harekin inguratua, eta horrek eskuz egindako triku baten itxura ematen zion. Haizea zebilen eta kinkila hots bat iritsi zitzaidan. Lurretik gertuen zegoen faroaren zatia iltze lodiz sostengatutako sokaz betea zegoen. Sokatik esekita, latorri poto hutsak, tarteka bikoteka jarrita. Haizeak elkarren artean edo paretaren aurka joarazten zien, eta behi-zintzarrien doinua sortzen zuten. Oraindik xehetasun ulertezin gehiago: harrien arteko junturak puntaz kanpora jarritako iltzeek beteak zeuden. Iltzeek gain, beira hautsiak, beira ugari. Eguzkiak berdez eta gorritz dirdirarazten zien. Apur bat gorago, ordea, beira zatiak eta iltzeak desagertu egiten ziren. Paretako harriak, eskailera ertain batekin gizon bat iritsiko litzatekeen tokiraino, kare-mortero inprobisatu batekin batuak zeuden, josiak; modu horretan, harresi inka baten trinkotasuna erdiesten zuten. Jaioberri baten azazkala ere ez litzateke sartuko. Faroa inguratu nuen: eraikin guztia zegoen lan zentzugabe haiekin babes-tua. Atearen aurrera itzuli nintzenean Batis ikusi nuen, balkoian. Kanoi paralelodun eskopeta batekin apun-

tatu zidan. Hasierako harriduragatik, ez nintzen kildu:

—Kaixo, Batis. Gogoratzen al zara nitaz? —galdetu nion—. Zurekin hitz egin nahiko nuke. Azken batean, auzokoak gara. Auzotasun xelebrea, ez al zaizu iruditzen?

—Hurreratzen bazara, tiro egingo dut.

Nire esperientziaren arabera, gizon batek beste bat hil nahi duenean, ez dio mehatxu egiten, eta mehatxu egiten dionean, ez du hil nahi.

—Izan zaitetz zentzudun, Batis —tematu nintzen—; hitz adeitsu bat.

Ez zidan erantzun, balkoitik adi-adi apuntatzen zidan.

—Noiz arterainoko kontratua duzu? —esan nuen, zerbait esatearren—. Berehala al datorkizu ordezkoa?

—Akabatu egingo zaitut.

Gizon batek hitz egin nahi ez duenean, torturaz baino behartu ezin delako uste osoa nuen, halaber. Eta ni ez nintzen torturatzailerik. Sorbaldak harrotuz alde egin nuen, presarik gabe. Atzera berriz oihanera sartzera nindoala, biratu egin nintzen: oraindik balkoian zegoen, hankak bereiziak eta tiratzaile alpinoaren jarrierari eutsiz. Ezker begia itxi eta guzti egiten zuen.



Egunaren hondarrek ez dute bestelako garrantzirik. Etxea txukuntzen bukatu nuen. Emozio bitxi bat etorri zitzaidan. Beheko ezpaina ausiki nuen odoletan ja-

rri arte, egiten nuenaren kontzientziarik gabe. Koñak upela hartu nuen, egiten nuenaren kontzientzia osoa- rekin. Erdi horditua, erdi edan gabea, erdi tristea, erdi alai, su-tximinia piztu nuen. Erre eta zigarrokinak sutara botatzen nituen. Poeta ugarik hitz egiten du aberri- minaz. Nik ez dut inoiz jakin arte poetik oa balioesten. Oinazea lengoaiaren aurretiko egoera dela pentsatzen dut, eta horrenbestez, norabide horretan eginahal oro hutsala dela. Eta jada ez nuen aberririk.

Melankoliaren hausnarketak elikatzen ari nintzen ilunpea etorri zenean. Munduko herrialde haietan gauak ez zuen bere burua iragartzen, erasoz konki- tatzen zuen. Izualdi bat: nire bizilekuaren erdi ilun- tasunak argitu egin ziren kolpez, argi zuriko eztanda batekin, zeina segidan desagertu baitzen. Faraa zen. Batisek piztu egin zuen, fokuak bere jira-bueltak ha- si zituen, eta aldi bakoitzean nire leihoetatik sartzen zen. Ez nuen guztiz ulertu. Fokuak zuzen-zuzenean ukitzen ninduen. Horrek esan nahi zuen bere ange- lua oso baxua zela, eta zerbitzu gutxi eskainiko ziela urontzi urrutikoenei. Zein gizon itxia, pentsatu nuen. Onartu nezakeen, adibidez, irlara bakardade bila eto- rri izana. Baina kasu honetan, bere bakardadearen praktika nirearen oso desberdina zen. Nire ikuspegi- tik egiazko bakardadea barnekoa zen, eta ez zuen era- gozten aldian aldiko auzokoekin kontaktu atseginik edukitzea. Berak, aldiz, gizaki guztiak legenardunak bezala tratatzea hautatzen zuen. Edonola ere, une haie- tan Batisen arrarotasunak oso gutxi interesatzen zi- tzaizkidan.

Gogoan dut petrolio kink e bat piztu nuela. Mahaiaren aurrean eseri eta nire ordutegia planifikatu nuen. Horrela nengoen. Hondoan, su-tximinia; ni eta idazmahaia etxebizitzaren kontrako aldean. Nire eskuinean etxeko atea eta ohea, azken hau ontzikoaren oso berdintsua. Beste paretan, kutxa eta kaxak, guztia oso sinplea. Apur bat geroago, hots irrigarri eta urrutiko bat entzun nuen. Gutxi gorabehera urruntasunean ahuntz-saldo txiki baten zapasaltoa entzungo bagenu bezala. Hasieran euriaren zurrumurruarekin, tanta lodi eta bakartien hots batekin nahastu nuen. Altxatu eta leiho hurbilenetik begiratu nuen. Ez zuen euririk ari. Ilargi beteak itsasoaren azalera purpurinaz zikintzen zuen. Argia hondartzan iltzatutako enborren gainera erortzen zen. Gorputz-adar humano estatikoak imajinatzen nituen errazki, eta multzoak harrizko oihan bat gogorarazten zuen. Baina ez zuen euririk ari. Pentsatzeari utzi nion, eta berriro eseri nintzen. Eta hura ikusi nuen. Hura. Zoramenak begiak lapurtu dizkit, pentsatu nuen.

Atearen behealdean katu-zulo moduko bat zegoen. Zulo borobil bat, eta hartan pausatua, tranpol mugikor bat. Besoa han barrutik sartzen zen. Beso oso bat, biluzi, luze-luzea. Zerbaiten bila zebilen, mugimendu epileptikoak eginez. Sarraila agian? Ez zen giza-beso bat. Kinkeak eta suak argi bizirik ematen ez bazidaten ere, ukondoan hiru hezur hauteman zitezkeen, txiki-txikiak eta gureak baino zorrotzagoak. Gantz gramo bat ere ez, muskulatura garbia, marrazo larruazala. Baina

okerren-okerrena eskua zen. Kasik azazkaletaraino iristen zen mintz batek batzen zituen atzamarrak.

Harridurari ikara olatu batek jarraitu zion. Izuz oihukatu nuen, eta une berean aulkitik jauzi egin nuen. Entzutean, ahots multzo batek erantzun zidan. Alde guztietatik zeuden. Etxea inguratu eta inoiz entzun gabeko doinuaz oihukatu zuten, hipopotamoaren orro eta hienaren garrasi nahasketa batez. Hainbesteko beldurra nuen, ezen nire terrorea ere ez baitzitzaidan sinesgarria suertatzen. Beste leiho batetik begiratu nuen, gogoa huts.

Ikusi bainoago, sumatu egin nitzakeen. Ni baino arra bat garaiagoak ziren eta meheagoak. Etxe inguruetatik lasterka ari ziren. Gazelaren bizitasuna zeukaten. Ilargi beteak euren profilak nabarmentzen zituen. Nire begiek detektatu bezain pronto, leihoak eskaintzen zidan ikus-angeluaren mugatik ihes egiten zuten. Haietako bat gelditu da, kolibriaren bizitasunaz mugitu du burua, garrasi egin du, lasterka, itzuli da, pare bat erantsi zaizkio eta noranzkoa aldatu dute, auskalo zergatik; guztia tximistaren abiadaz. Leherketa bat entzun nuen nire atzean: kontrako leihoko beirak hautsi zituzten. Horrek ikusle paperetik biktimarenera pasarazi ninduen. Patrick sainduagatik, etxera sartzen ari ziren! Euren zentzurik ezak, horrexek baino ez ninduen salbatu. Leihoa errektangulu txiki bat zen, baina gorputz minimoki abil baten pausoa onartuko zukeen. Grinak presatu egiten zituen, ordea: denek nahi zuten buruz barnera jauzi egin, eta inbutua sortzen zuten. Faroak eszena argitu zuen. Lipar mendre bat, erabateko laztura. Sei, zazpi beso garroak bezala

mugituz, eta, hauen atzean, sasi-mundu hartako ur lehorreko izakien aurpegiek ulu egiten zuten, arrautzak bezalako begiak, orratzak bezalako begi-niniak, zuloak sudur gisa, bekainik gabe, ezpainik gabe, aho handiz.

Arrazoiz bainoago, senez aritu nintzen. Su-tximiniatik ilinti lodi bat hartu nuen, eta oiuhu batez, inarosten ziren besoak kolpatu nituen. Pindarrak, odol urdina, oinaze uhuriak eta zur erre zatiak jausi ziren. Azken besoak alde egin zuenean, ilintia kanpora jaurti nuen. Leihoeak barne-ateak zituzten. Itxi eta tranga-tzen saiatu nintzen, baina, hartaz profitatuz, azken atzaparrak lepoa eraso zidan. Izan nuen ernetasunak ni ere harritzen nau. Munstroaren eskumuturrari aurre egin beharrean, atzamar bat oratzea izan zen nire erreakzioa. Hezurra hautsi arte bihurritu nuen. Salto bat atzera egin dut. Su-tximiniatik zaku huts batez txingarrak jaso eta leihotik jaurti ditut. Euri horrek arao ikusezin batzuk eragin ditu, eta geldialdi horretan, zurezko barne-ateak albait eta lasterren itxi ditut.

Artean hiru leiho geratzen ziren, guztiak barne-ateak irekiak. Lasterketa hilgarri bat sortu zen. Leiho batetik bestera jauzi egin nuen, leihotxoak itxi eta tranga pasatuz. Beraiek, nola edo hala, egoera ulertu eta etxea kanpotik inguratu zuten, hurrengo leihoa arte. Bero-bero egindako ahotsengatik jarraitu nezakeen euren ibilbidea. Zorionez, eurak baino lehenago iristen nintzen. Azkena ixterakoan, auhen luze eta izugarri batez azaldu zen etsipena, aldi bereko uhuri bat, hamar, hamaika, hamabi eztarrikoa, ezin jakin, beldurrak kalkulua eragozten du.

Kanpoan jarraitzen zuten. Etsita, zer egin erabaki bitartean, arma bat edo besteren bila hasi nintzen. Aizkora, aizkora, aizkora agintzen zidan garunak. Baina ez nuen ikusten, ez nuen bilatzeko astirik, eta pala batekin konformatu nintzen. Munstro mordo batek leihoetako bat jo zuen. Zurak dar-dar egiten zuen, baina tranga sendoa zen. Ez zuten inolako taktika berezirik jarraitzen, ordenarik eta zentzurik gabe jotzen zuten. Baldintza haietan ez neukan nola defendatu, auskalo zer itxaron nezakeen. Katu-zuloko besoaz oroitu nintzen: han jarraitzen zuen. Nerbio-kolapso batetik oso hurbil sentitu nintzen hura ikustean. Tentsio metatu guztiaz, nigan arrotza zen amorru batez gorputz-atal beldurgarri haren aurka jausi nintzen. Pala borra baten moduan erabiliz jo nuen, gero mozteko jiratu nuen, baina, horrela ere, eutsi egiten zion. Azkenean zain bat moztu nion antza, odola presio handiz atera baitzitzaion, eta besoak musker baten antzera egin zuen alde.

Munstro erdi elbarriaren auhenak entzun nituen. Bere kideak ere negarrez ari ziren. Leihoaren aurkako kolpeak gelditu ziren. Isilune bat. Inoiz entzun dudan isiltasunik okerreana. Banekien, segur nengoen, hor kanpoan zeudela. Denak batera, denak bat, ulu batzuk egiten hasi ziren, sintonian. Miauka ari ziren, doi-doi katutxoek ama etor dadin galdatzen dutenean bezala. Miau, miau, miau labur eta goxo batzuk, triste eta babesgabeak. Zera esango balidate bezala: atera zaitez, atera zaitez, guztia gaizki-ulertzea izan da, ez dizugu minik egin nahi. Ez zitzaien sinesgarri izatea axola, izua barreiatu besterik ez zuten nahi. Miau ahul-ahu-

lak egiten zituzten, eta iruzurra aldika ateen eta itxi-tako leihoen aurka zarata eginez laguntzen zuten. Ez itzazu aditu, Jainkoarren, ez itzazu aditu, esan nuen neurekiko. Atea kutxekin indartu nuen. Enbor gehiago ezarri nuen suan, tximinian bortxaz sartzea bururatu ote zitzaien. Ezinegonaz begiratu nion sabaia-ri. Arbelezko lauzaz estalia zegoen. Saiatuz gero , bazeukaten hura hondatu eta sartzerik. Baina ez zuten ez gauza bat ez bestea egin. Gau osoan, jira-buelta bakoitzean, faroaren argi monotonoa arrakalatik sartu zen. Izpi mehe eta luze batzuk, erlojuaren zehaztasunaz joan eta etortzen zirenak. Gau guztian eraso zuten, nola leihoak hala atea ere; erasoaldi bakoitzean sarbideren batek amore emango zuela uste nuen. Gero, isilune luze bat.

Faroa itzali zen. Kontu handiz leiho bat ireki nuen. Ez zeuden. Zeruertzean more eta kuia koloreko zerranda leun bat hedatzen zen. Lurrera amildu nintzen, zaku bat bezala, pala oraindik eskuetan. Nire baitan bizpahiru sentipen berri eta ezezagunek ziharduten lehian. Une bat geroago, uraren gainean zetzan eguzki txiki bat ikusgarri egin zen. Hodeien errezelak oinpean gordetako astro hark baino gehiago berotuko zukeen kandela batek iluntasunean. Baina eguzkia zen. Latitude austral haietan udak oso gau laburrak zituen. Zalantzarik gabe, nire bizitzako laburrena izan zen. Niri, luzeena iruditu zitzaidan.